

SCORE PROIEKTUA, BARTZELONAKO OPEN LIVING LAB DAYS-EN PARTAIDEA

Posted on 25/09/2023 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Arrisku klimatikoa](#), [arintzea eta egokitzea](#), [Living Labs](#), [SCORE](#)

[SCORE proiektua](#) osatzen dugun CCLL (*Coastal Cities Living Labs*) guztiok berriz biltzeko aukera izan genuen irailaren 22an eta 23an Bartzelonan egindako [Open Living Lab Days](#) kongresuaren harira.

Lehen egunean, SCOREko partner-ek aukera izan genuen ikasitakoak elbarbanatzeko eta Vilanovako CCLLa eta bere aurrerapena hobeto ezagutzeko. Etapa ezberdinetan izan dituen arrakastak eta erronkak aztertu genituen, horrela, batzuentzat eta besteentzat lagungarriak izan daitezkeen esperientziak partekatuz. Hori guztia, klima-aldaketaren aurrean erresilientzia areagotzeko ekosistemetan oinarritutako irtenbideak bilatzeko eta elkarrekin sortzeko helburuan modu egokiagoan aurrera egin dezaten.



Hilaren 23an, Open Living Lab Dayseko publikoaren aurrean, non hainbat herrialde eta hiritako living lab-ak bildu ziren, helburu desberdinetakoak, SCOREko CCLLek beren *case studies*-ak bertaraturakoei azaltzeko eta tokiko mailan egiten ari diren lana ezagutarazteko aukera izan zuten.



